ZALDIBIAKO UDALA

2022HBJI0001

TXOSTEN-PROPOSAMENA:

Eskatzailea: NEKINE S.L.U.. Olaeta Auzoa, 6 Nekine
Gaia **Jarduera sailkatuan aritzeko aurretiazko komunikazioa**
Erregistro data: **23/08/2022**

I.- AURREKARIAK

Joan den 2024ko maiatzaren 02(e)an, A/24-00339 zenbakiaz eta NEKINE S.L.U.ren izenean egindako, Olaeta Auzoa, 6-an «Jarduera Sailkatuaren Ingurumen Baimen Bateratua lortzeko Hirigintza Bateragarritasunaren ahalbidea» aztertzeko eskaria jaso da.

Udalean aurretik egindako izapideak tarteko, segidako dokumentazio hau dago jasota:

- Jarduera proiektua bere zuzenketa eta guzti.
- Suteen Aurreko Babeserako neurri zuzentzileez.
- Kanpo espazioaren mugaketa planoak
- Gasoil deposituaren proiektua
- Lan lekuen gutxieneko osasun eta segurtasun neurrien txostena

II.- HIRIGINTZA AHALBIDEA

// Zaldibiako HAPO-a

Jarduera Olaeta 6n kokatua dago, 2018ko Zaldibiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, Lurzoru Urbanizaezin gisara kalifikatzen du eremua.

LURZORU URBANIZAEZINEKO EREMUA – OLAETAKO NEKAZARITZA ALDEA	
Eremu hau Olaetako nekazaritza aldeak osatzen du; bertan kokatzen dira Goizane eta Euskaber nekazaritza-industriak eta antzinako teileria bat, duela hamarkada batzuetatik hona inguruko eraikitzaile batek materiala biltegiratzeko erabiltzen duena.	
EGITURAZKO ANTOLAMENDUARI BURUZKO ZEHAZTAPENAK	
LURZORUAREN SAILKAPENA	Lurzoru urbanizaezina
EREMUAREN AZALERA OSOA, GUTXI GORABEHERA	19.200,1 m^2
KALIFIKAZIO GLOBALA, MUGATUTAKO EREMUAN	Mugatutako eremuan erabilera globaleko kalifikazio hau aurreikusi da: - D.11 Lurrazaleko urak babestekoak - D.13.1 Nekazaritza eta abeltzaintza: Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala: trantsizioko landa-paisaia.
ERAIKUNTZA- ETA URBANIZAZIO-BALDINTZAK	154. artikulua Nekazaritza-industriak artikuluaren arabera, egungo eraikuntzek okupazio-baldintza aurreikusiak gainditzen dituztenez gero, finkatuta geratu da egungo eraikuntzaren okupazioa, profila, altuera eta eraikuntza-bolumena.
ERABILERA-BALDINTZAK	Bertan dauden erabilerak finkatzen dira.

Azken urte luzetan, eskari honi dagokion lurzatian, izan den iharduera eraikuntzako materialen biltegiratzeakoa izan da.

Udaleko dokumentazioetan ez dago biltagiratzeari buruzko dokumentazio tekniko zehatzik.

Zaldibiako 2018ko HAPO-ak baina, bertan ematen diren erabilerak finkatutzat ematen ditu, biltegiratze erabilera ere bertan sartuaz.

ZALDIBIAKO UDALA

2022HBJI0001

Geo Euskadi bisorearen bidez ere, 2006az geroztik material bilketaren erabilera baiezta liteke eremuan. Berau hormigoizko pabimentuaren gainean garatzen dela ere ikus genezake urtez urteko airetiko argazkien bidez.

2006-ko Ortofotoa



2012-ko Ortofotoa

Santa Fe kalea, 18. 20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa) Tel: 943880357 Fax:943885043 E-posta:bulegoa@zaldibia.eus web: www.zaldibia.eus

ZALDIBIAKO
UDALA

2022HBJI0001

2018-ko Ortofotoa

Bestalde, Udal honetako informazioaren arabera, aurretik izan duen eta ekainaren 25eko 4/2015 Legearen baitan, I. eranskinean aipatzen diren lurzorua kutsa dezaketen jarduera izanik, kutsatzeko ahalmen TXIKIA du ekainaren 25eko 4/2015 Legearen II. eranskinaren arabera.

Hau ikusirik, hirigintza ahalbidearen arabera, iharduera Zaldibiako hirigintza ezaugarriekin bateragarria dela ondorioztatzen da.

III.- PROPOSAMENA

Aurretik azaldutakoaren arabera, hau PROPOSATZEN DUT:

1.- Joan den 2024ko maiatzaren 02(e)an, A/24-00339 zenbakiaz eta NEKINE S.L.U.ren izenean egindako, Olaeta Auzoa, 6-an «Jarduera Sailkatuaren Ingurumen Baimen Bateratua lortzeko Hirigintza Bateragarritasunaren ahalbidea» aztertzeko eskariari erantzunez, NEKINEK S.L.U.-k eginbide duen ihardueraren Hirigintza Bateragarritasunaren (“Compatibilidad Urbanística”) ALDEKO txostena emititzea.

2.- Txosten tekniko hau interesatuari bidaltzea

Dagokion ondorioetarako jakinarazten zaizuna.

Sinatzailea	ARKITEKTOA Gorka Segurola Dorronsoro		
Kodea	S 24/0086	Udala	Zaldibia
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA19L28.lWij		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			